# Contra el cambio climático y por la justicia social ¡Cambiemos el mundo, NO el clima!

Desde que los expertos del IPCC (Panel Internacional Sobre Cambio climático) emitieron su primer informe a principios de los 90, era evidente que la comunidad científica señalaba un grave problema que exigía una respuesta política urgente. El 4º informe del IPCC (2007) es ya concluyente: Once de los doce años más cálidos desde 1850 se han registrado entre 1995 y 2006; la temperatura media ha aumentado 0,74 ºC de 1906 a 2005; la tendencia al aumento de la temperatura de los últimos cincuenta años prácticamente dobla la de los cien anteriores.

Las evidencias son tan clamorosas que la táctica del gran capital y de los gobiernos no es ya desprestigiar las evidencias, sino tomar la iniciativa y **hacer del cambio climático un nuevo negocio y pasarle la factura a los sectores más débiles**.

A nadie se le escapa ya que el cambio climático se concreta en catástrofes naturales cada vez más intensas y habituales que pueden provocar tragedias en lo que respecta a reducción de la biodiversidad, a la desaparición de ecosistemas, de la pesca, de los cultivos y de otras actividades económicas, constituyendo una catástrofe irreversible en muchos países, sobre todo del Sur. Evitar que esto mute en una catástrofe ecológica, económica, social, global y permanente, todavía está en nuestras manos, **pero el tiempo se agota**.

La globalización ha consumado la internacionalización del capitalismo al precio de haber desencadenado un desequilibrio ecológico sin parangón en la historia del planeta. Este **sistema está atravesando una crisis profunda** comparable a la de los años treinta del siglo XX y su respuesta es cambiar algo para que todo siga igual. Al mismo tiempo, ha centralizado la toma de decisiones en un puñado de países y transnacionales. Por ello, es imposible cambiar de rumbo sin romper con el mercado mundial, así como con las instituciones de la "gobernanza" mundial (Banco Mundial, FMI, OMC).

Necesitamos potentes inversiones públicas y **reorientar el gasto público para iniciar una reconversión ecológica de la industria**, de los sistemas de movilidad y crear nuevos empleos (todo indica que las tecnologías limpias son más intensas en trabajo que las convencionales) que cubran necesidades sociales y/o medioambientales que deben expandirse frente a las satisfechas por la sociedad de consumo: salud, educación, ocio y cultura.

**El coste de no actuar frente al cambio climático se estima en pérdidas del PIB mundial entre el 5 y el 20%, el coste de la actuación en el 1%**. Deben ser aquellos que ha originado la crisis económica y ecológica quienes financien estas inversiones.

La izquierda y el sindicalismo deben anticiparse e identificar las consecuencias adversas en cada sector, opciones menos costosas en términos sociales, así como las oportunidades que se puedan derivar para el desarrollo de una nueva economía. Se trata de **iniciar una reconversión basada en una nueva cultura del "buen vivir" al alcance de todos y reconciliable con el planeta**.

El desarrollo de las energías alternativas tiene que hacerse creando un verdadero **servicio público energético con gestión democrática y transparente de las empresas** que operan hoy en día en el Estado español.

**Calentemos el clima de las movilizaciones sociales**

La ciudadanía no puede confiar en gobiernos ni en multinacionales para salvar el clima, ya que son parte del problema. Tampoco en soluciones tecnológicas mágicas sin que se modifique el modelo socioeconómico. **Necesitamos construir un amplio movimiento social** que una en un mismo combate la reconversión ecológica de la economía y la defensa de los derechos sociales. Preparemos acciones descentralizadas el 12 de Diciembre coincidiendo con la cumbre de la ONU en Copenhague sobre cambio climático.




Exigimos que la Cumbre adopte entre otras las siguientes decisiones:

Drástica reducción de emisiones mundiales de CO2 para no pasar el temible límite de incremento de 2ºC de la temperatura media. Los países industrializados deberán reducir en 2020 sus emisiones por debajo del 40% respecto a los niveles de 1990 de forma obligatoria y sin recurrir a la compensación por inversiones en terceros países. Se debe lograr la reducción de la demanda de energía primaria en un 20% respecto a 2005 para 2020. Conseguir que la contribución de las renovables a la energía primaria ascienda al 30% en 2020 y al 80% en 2050 respecto a los niveles de 1990.

Apoyar el tránsito a una economía libre de carbono de los países empobrecidos mediante más y mejores ayudas para mitigar y prevenir los efectos del cambio climático. Ello implica crear un fondo que se alimente de la fiscalidad sobre los combustibles fósiles y nucleares en los países industrializados y también facilitarles la transferencia de tecnologías limpias en pago de la deuda ecológica.

Reforma de los denominados Mecanismos de Desarrollo Limpio (MDL) que incluya el cese de la comercialización de reducciones de emisiones estratégicas y permanentes. Rechazamos los proyectos que pueden además causar nuevos daños ambientales y sociales, como los basados en la energía nuclear, la deforestación para cambiar los usos del suelo…

Impulso de un nuevo modelo de movilidad y de ciudad sostenible mediante el transporte terrestre de personas y mercancías público y mayoritariamente electrificado.

Asegurar la transición justa mediante la protección de la calidad de vida de trabajadores, así como la protección de la economía de las comunidades (diversificación económica, recursos públicos…)

Exigimos que los gobiernos, que no salen de las proclamas, pongan por delante los interese del Planeta por encima de los intereses de unos pocos.

**¡SALVEMOS EL CLIMA, NO LOS BANCOS!**

# Klima aldaketaren kontra, justizia sozialaren alde
# Ez dezagun klima aldatu, mundua baizik!

Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazioarteko Taldeak 90ko hamarkadaren hasieran bere lehenengo txostena plazaratu zuenetik, argi zegoen komunitate zientifikoak premiazko erantzun politiko proportzionatua eskatzen zuen ingurugiro arazo larri baten aurrean geundela adierazten ari zela. Taldearen laugarren txostena (2007) eztabaidaezina da horri buruz. 1850 geroztik izandako hamabi urte beroenetatik hamaika 1995 eta 2006 artean izan dira. 1906 eta 2005 artean, mundu mailako batezbesteko tenperatura 0,74º zentigradu igo da. Azkenengo berrogeitahamar urtetako tenperatura igotzeko joerak aurreneko ehun urtetakoa bikoiztu du.

Pilatutako ebidentzia hain handia da non gobernu eta kapital handiaren taktika ez da ebidentzia hau zalantzan jartzea, aurrea hartu eta **betiko biktimen lepotik negozioa egitea** baizik.

Dagoeneko denok dakigu klima aldaketa gero eta sarriagoak eta latzagoak diren hondamendi naturaletan gauzatzen dela eta haue ondorioak biodibertsitate, arrantza, labore, ekosistema eta nainbat jarduera ekonomikoentzako katastrofikoak izan daitezkeela, hegoaldeko herrietan bereziki. Gure eskuetan dago hau guztia mundu mailan ondorio ekonomiko, sozial eta politikoak izango dituen hondamendi ekologiko orokorra bihurtzea saihestea, **baina denbora bukatzen ari da**.

Globalizazioak kapitalismoaren internazionalizazioa burutu du, planetaren historian parerik izan ez duen desoreka ekologiko baten kontura. Gaur, XX. Mendeko 30ko hamarkadakoarekin bakarrik alderatu daiteken **krisialdi sakona sufritzen ari da kapitalismoa** eta bere erantzuna, bai krisiari eta bai klima aldaketari, gauza txiki batzuk aldatzea izan da, dena betiko moduan jarrai dezan. Aldi berean, transnazional eta herrialde gutxi batzuen eskutan utzi du erabakitzeko gaitasuna (G8, G20, etab.). Ezinezkoa da norabidea aldatzea, munduko "gobernantza" erakundeekin (IMF, WB, WTO) eta merkatu globala eta bere inposaketekin hautsi gabe.

Inbertsio publiko indartsuak eta **gastu publikoa berbideratu behar dira industriaren eta mugikortasun sistemaren birmoldaketa ekologikoa lortzeko**. Aldi berean, kontsumo-gizarteak suspertzen dituen beharren aurrean, ingurugiro eta gizartearen beharrak asetzeko enpleguak sortu behar dira (esperientziak erakutsi duenez, teknologia garbiak ohikoak baino intentsiboagoak dira laneskuan): osasuna, hezkuntza, aisia eta kultura.

**Klima aldaketari aurre ez egitearen kostua %5 eta 20 arteko galera suposatuko luke munduko barne-produktu gordinean; aurre egiteak, berriz, %1ekoa**. Krisi ekonomiko eta ekologikoa eragin dutenek dira inbertsio hauek ordaindu behar dituztenak.

Ezkerrari eta sindikatuei dagokie birmoldaketak sektore bakoitzean izan ditzakeen ondorio txarrak zehaztea eta gizartearentzako aukera jasangarriagoak eta ekonomia berriak sortu ditzakeen aukerak identifikatzea. **Planetarentzako jasangarria eta guztion eskura izango den "bizitza onaren" kulturan oinarritutako birmoldaketa hastea da helburua**.

Energia alternatiboen garapena, gaur egun Espainiar Estatuan lan egiten duten enpresekin **kudeaketa demokratikoa eta argia izango duen energia-zerbitzu publikoa** sortuz egin behar da.

**Gizarte mobilizazioen klima berotu dezagun!**

Klima salbatzeko, herritarrok ezin dugu gure konfidantza arazoaren parte diren gobernu eta multinazionaletan jarri. Ezta eredu sozioekonomikoa mantentzen duten irtenbide teknologiko magikoetan ere. Borroka berean ekonomiaren birmoldaketa ekologikoa eta eskubide sozialen defentsa uztartzen dituen **gizarte mugimendu zabala antolatu behar dugu**. Abenduaren 12rako, Nazio Batuen klima aldaketari buruzko Copenhagueko goi-bileraren eguna, ekimen deszentralizatuak prestatu ditzagun.

Goi-bilerak besteen artean hurrengo erabakiak hartzea exijitzen dugu:

Munduko CO2 gasaren isurpenen murrizketa drastikoa, batez besteko tenperaturaren igoerak 2º zentigraduen muga gainditu ez dezan. 2020 urterako, herri industrializatuen isurpenak %40a murriztu behar dira 1990koekin alderatuta, derrigorrez eta beste herrietan egindako inbertsioengatik konpentsaziorik jaso gabe. Urte horretarako, oinarrizko energiaren eskaera, 2005koarekin alderatuta, %20a murriztu behar da ere. Aldi berean, oinarrizko energietan berriztagarrien partea, 1990ko mailekin alderatuta, %30a igo behar da 2020ean eta %80a 2050ean.

Herri pobreetan aldaketa klimatikoaren ondorioak arintzeko eta saihesteko laguntza gehiago eta hobeak emanez karbonorik gabeko ekonomia baterako trantsizioan lagundu behar da. Honek herri industrializatuetan energia fosil eta nuklearrei ezarritutako zergekin hornitutako fondoa sortzea eta zor ekologikoaren ordainetan teknologia garbien transferentzia erraztea dakar.

Garapen Garbiko Mekanismoen erreforma, isurpen estrategiko eta iraunkorren murrizketen salerosketa amaituz. Ingurugiroari eta gizarteari kalte egin diezaieketen proiektuen aurka gaude, energia nuklearrean oinarritutakoak edo lurraren erabilera aldatzeko deforestazioa, adibidez.

Mugikortasun eta hiri jasangarri eredu baten sustapena, pertsona eta merkantzien garraio publikoa eta nagusiki elektrifikatua bultzatuz.

Langileen bizi-kalitatea eta komunitateen ekonomia babestuz (ekonomiaren dibertsifikazioa, baliabide publikoak…) trantsizio justua bermatzea.

Gobernuek aldarrikapenak gainditu eta Planetaren interesak gutxi batzuen interesen gainetik jartzea exijitzen dugu.

**EZ DITZAGUN BANKUAK SALBATU, KLIMA BAIZIK!**

**contra el cambio climático y por la justicia social**

ezker alternatiboa.org